

Hernanin bada bertso sorta bat ezagun samarra. Baztangaren inguruko bertsoak dira, herriko gertaera ezagun baten kronika errimatu interesgarria. 1918ko apirilaren 1ean udalbatza garrantzitsu bat izan zen Hernaniko Udalean. Bertan ziren Benefizentzia eta Osasun Batzordea eta herritar talde zabala. Auzia garrantzitsua zen: Gobernadore Gorenak agindua emana zuen hurrengo eguneko hamarrak baino lehen Lasarteko baztangadun gaixoak –batzuk egoera oso txarrean, hiltzeko arrisku bizian– Hernaniko Benefizentzia Etxera ekar zitzaten. Herritarrek sutu egin ziren, beren osasuna eta Benefizentzia Etxeko egoiliarrena arriskuan jartzen zelako eta beldur zirelako herriko industriaren interesei ere eragingo ziela. Horregatik erabaki zuten kontra egitea, eta Gobernadorearekin Donostian mintzatzeko batzorde bat izendatu zuten.

Gobernadoreak ez zeukan hizketarako asmorik eta uko egin zion batzordea hartzeari berari. Hartara, protestazko telegramak igortzeari ekin zioten, agintari desberdinak helmuga. Hernaniarrek mehatxu larria ikusten zuten gobernadorearen erabakiaren atzean eta alternatibak jarri nahi zituzten mahai gainean. Ez zen gaixoezko elkartasun falta, herritarren osasunaren gaineko kezka baizik. Baztanga gaitz larria eta oso hilkorra zen.

Bide diplomatikoek emaitzarik ez zutela ematen ikusita, herria kalera atera zen, bazekartzaten gaixoen bidea oztopatzera. Garaiko aktek jasotzen dutenez, «ez klase eta ez sexu, inolako diferentziarik gabe» hernaniarrek protesta jendetsua egin zuten, eta eskura zuten guztia erabili zuten bidea ixteko. Azkenean, gobernadoreak atzera egin behar izan zuen bere erabakiarekin eta Lasartetik gertuko barrakoi batzuetara eramanez zituzten gaixoak.

Herriaren lorpena ospatzeko herri bazkaria antolatu zuten Ezkiaga pasealekuan. Bazkaria

BERTSOA HERNANIN

Matea Joxepa Zubeldia, oraindaino liburuetan kabitu ez den bertsolaria

 **KULTURA /** amagoia.mujika@gaur8.info

Txirritaren garaian bazen Hernanin beste bertsolari bat orain arte liburuetan kabitu ez dena eta ahozko memoriak ez duena mimoz gorde, bere etxekoenak salbu. Matea Joxepa Zubeldia Elizegi bertsolaria zen eta ahal zuenetan plazan aritzen zen. Estitxu Eizagirrek aurkeztu berri duen «Bertsoaren haria Hernanin» liburuko perla handienetakoa horixe.



Matea Joxepa Zubeldia Elizegi Hernaniko Ibarluze baserrikoa zen. GAUR8

bukatuta, aulki bat mahai gainera igo, bertan eseri eta 24 bertso bota zituen Matea Joxepa Zubeldia Elizegik. Gertatutakoaren kronika ederra benetan. Baina, zein zen Matea Joxepa Zubeldia Elizegi?

Estitxu Eizagirre kazetariak duela egun gutxi aurkeztu du “Bertsoaren haria Hernanin” liburua. Perla asko biltzen dituen lana da, 1800etik 2013ra bitartean Hernanin bertsoak izan dituen ibilera asko eta oso desberdinak biltzen dituenena. Baina perla horietan distiratsuenetakoa bera izan da: Matea Joxepa Zubeldia Elizegi.

«Baztangaren bertsoak badaudela Hernanin jakin samarra da, nahiz eta segur aski oso jende gutxik irakurri dituen. Baina egileari buruz ezer gutxi zekien inork, eta ez zegoen jakin-minik ere. Horrela geratu gara emakumeak liburuetatik kanpo. Eta horrela hasi ginen gure artean pentsatzen gauza ederra litzatekeela Matea Joxeparen berri jasotzea», hasi da kontatzen Estitxu Eizagirre.

Liburu argitaratu berrian Hernaniko eta Hernani inguruko bertsolari guztiek daukate beren orrialdea, beren biografia, baldin eta horretarako datu adina baldin badago behintzat. «Emakumeek beren orrialdea izatea nahi nuen, gaur egunekora iritsi

aurretik. Izan ere, erreferentziak asko daude; ‘amonak pasatu zidan zaletasuna’, ‘halako auzotan bazen leihotik bertsotan egiten zuen emakume gazte bat’... baina zehaztasunik gabe. Eta horrela hasi ginen, herrian zubeldiarrak nortzuk ziren ikusi eta Matea Joxeparen berri gehiago jakin nahian», segitu du.

Eta gauzak nola diren, ondoondoan topatu zuen Eizagirrek Matea Joxeparen ondorengoa. «Nire lankide Arantzazu Ruiz, hain juxtu liburuaren azala diseinatu duena, Matea Joxeparen ondorengoa da. A ze poza jakin nuenean! Bila ibili eta nahi gabe perla horrekin topo egin dut, eta poz horrekin geratzen naiz. Sekulakoa izan da. Matea Joxeparen ondorengoan ahotik jaso dut bere bizitzaren berri». Eta, azkenean, Matea Joxepa Zubeldia Elizegik bere tarteak dauka “Bertsoaren haria Hernanin” liburuan.

HERNANITIK MADRILA, ETA BUELTA

Matea Joxepa Zubeldia Elizegi (1867-1947) Hernaniko Ibarluze baserrian jaio zen. Baserriaren jabeak madrildarrak ziren eta orduan bazen ohitura etxeko alabak neskame bidaltzekoa baserriko jabeen etxera. Halaxe bidali zuten Madrila, artean neskakoa zela. Madrilen ezagutu zuen senarra, Manuel Ortiz Martinez burgostarra. Ezkondu eta Madrilen bertan bost seme-alaba izan zituzten. 1904an Hernanira bueltatu ziren eta bertan jaio ziren beste bi alaba. Zazpi seme-alaba eta 27 biloba izan zituen Matea Joxepak.

Senarra mehatzeetan lan egin zuen eta oso gaixo zegoen. Ezin zuen lanik egin, asmak jota zegoelako, eta lanak zituen arnasa hartzeko ere.

Madrildik bueltatu zirenean Joxepak janari denda bat ireki zuen Hernaniko Kale Nagusian, eta hortik atera zuen familia guztia aurrera. «Seme-alaba eta guzti, berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda, eta jeneroa negoziatu, eta kontuak eramanez eta... Esaten dutenez, gizona denda aurrean egoten zen aulki batean eserita, bere bizarrarekin. Hernanin bizardun ba-